

IKASKIDE PROIEKTUA

GOGOETARAKO SEI TXAPELAK

*Iturria: E. De Bono (1988) **Seis sombreros para pensar**. Barcelona: Granica, 211-222 orr.*

Gogoetaren etsai nagusia korapilotasuna da, nahaste-borrastea sortzen baitu. Gogoeta argi eta erraza denean atseginago eta eraginkorragoa gertatzen da. Gogoetarako sei txapelen ideia oso erraza da. Baita erabilera ere.

Gogoetarako sei txapelen ideiak bi helburu nagusi ditu. Lehena, gogoeta erraztea, aukera ematen diolarik gogoeta-egileari aldiko lan bakarra egiteko. Ugari dira lanak: zirrarak, logika, informazioa, itxaropenak eta sormena. Hauei guztiei batera heldu beharrean, hobe da banan bana heltzea. Beraz, ez luke gogoeta-egileak logikaz baliatu behar, esaterako, zirrara baten eragina erdi estaltzeko. Horren ordez, halako zirrara, txapel gorria jantzirik, zuzen-zuzenean eta inongo zuriketetan aritu gabe azalera lezake. Ondoren, txapel beltzaz balia liteke alderdi logikoa miatzeko.

Gogoetarako sei txapelen bigarren helburua honakoa da: gogoeta motaz aldatzea. Hala, bilera batean etengabe ezkor jokatzeko ari den lagun bati esan diezaiokegu “txapel beltza” kentzeko. Adierazmolde honek aditzera ematen dio zeharo ezkor jokatzeko ari dela. Halaber, “txapel horia” jantzeko eska diezaiokegu. Honek zuzen eskatzen dio baikor jokatzeko. Sei txapelena hizkera bat da, zehatza izan arren inor mintzen ez duena. Hizkera honek ez du solaskideen “ego” edo nortasuna mehatxatzen. Antzezlan bat jokatzeko bezalaxe izango litzateke. Sei txapelei esker eska daiteke gogoeta-tankera aldatzeko.

Argi dezadan, badaezpada ere, ez naizela esaten ari uneoro nahita erabili beharko genukeenik txapelen bat edo beste. Ez da beharrezkoa inondik inora ere.

Batzuetan, txapel guztiak erabili nahi ditugu hurrenkera jakin batean. Halakoetan, alde zehatzetik zehatz eta azaldu behar dugu zein egiturari helduko diogun. Beste batzuetan, ordea – eta hau agian maizago gertatu ohi da - eztabaidaren joan-etorrian tarteka eta ez besterik jantzi nahi dugu txapelik. Edo agian nahita eskatu nahi diogu solaskide bati txapel jakin bat jantzeko. Hasieran arrotz suerta daiteke honelako jokamoldea, baina oso berezko bihurtu daiteke denborak aurrera egin ahala.

Jakina denez, solaskide guztiek joko-arauen berri dutenean lortzen du hizkera honek eraginkortasunik handiena. Hortik segitzen da, esaterako, ezen maiz biltzen diren erakundekide guztiek ezagutu beharko luketela txapel ezberdinen esanahia. Teknikak hobeto egiten du lan hizkera komuna denean.

GOGOETARAKO SEI TXAPELEN URRASPIDEA

Gogoetarako sei txapelen asmoa honakoa da: gogoetaren nahaspila argitzea, gogoeta mota ezberdinak txandaka erabiliz. Hori hobe da dena aldi berean egitea edo egiten saiatzea baino. Antzekotasunik handiena koloretako inpresioarekin aurki dezakegu. Banan bana bereizirik inprimatzen da kolore bakoitza, eta azkenean denak bildurik ikusten da irudi osoa.

Gogoetarako sei txapelen teknika nahita diseinatu dugu gogoeta ohiko era argudiatzailetik ateratzeko eta era kartografikora eramateko. Horrela, gogoeta bi alditan egiten da.

Lehenengoan mapa egiten da. Bigarreanean bidea aukeratzen da, mapan oinarrituta jakina. Baldin eta nahiko mapa ona egin bada, normalean begi bistan gelditzen da zein den biderik egokiena. Koloretako inpresioaren kasuan bezala, sei txapeletako bakoitzak gogoeta mota bat erabiltzen du mapa egiteko.

Badakit sei txapelek ez dutela gogamenaren eremu osoa biltzen, baina bai bederen egikera nagusiak. Bestalde, ez da nire asmoa aholkatzea gogoetan gabiltzan bakoitzean txapelen bat edo beste jantzita jardun beharko genukeenik.

Txapelen baliorik handiena antzezlan egitea da. Izan ere, itxurazko jokamolde batzuk hitzartzen ditu teknika honek, eta haiei esker, gogoeta mota jakin batzuk eskatzen ahal dizkiegu bai besteei bai geure buruari. Gogoetarako joko-arauak finkatzen ditu. Jokalari guztiek ezagutu behar dituzte arauak.

Txapelak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago txertatuko dira gogoetaren kulturaren. Erakunde bateko kide guztiek ezagutu behar lukete oinarritzko hizkera hau, beren ohiko jokaeran txertatuko bada.

Geure aburuz, fokatutako gogoeta ohikoa baino askoz ere indartsuagoa suertatzen da. Jada ez dugu denbora xahutuko bukaerarik gabeko eztabaidetan eta noraezeko argudioetan. Horren ordez, bide zehatz eta zorrotza izango dugu eskura.

Hasieran, agian deseroso samar senti daiteke jendea, baina sentsazioa berehala desagertzen da, jokamolde horren onurak agertu bezain laster. Txapelen lehen erabilera honakoa izan daiteke: tarteka eskatzea txapel jakinen bat jantzeko edo txapel beltzaren ordez beste bat jartzeko.

Txapelen baliorik handiena – berriro diot – gogoetarako eginkizunak zehaztea da. Gogoeta-egileok normalean harro eta ziur sentitzen gara eginkizunen batean edo bestean. Beraz, arrisku handia izango genuke eginkizun bakarrean (beltzean normalean) harrapatuta gelditzeko. Txapelen antezlan itxurak saihesten du arrisku hau.

Berriz azpimarratu nahi dut oso erraza dela teknika hau erabiltzea. Ez da beharrezkoa irakurleak gogoratzea liburu honetako orrialde guztietan zehar esandakoak. Hauek adarrak dira. Enborra, ordea, gogoratzeko erraza da. Hona hemen muina:

- **Txapel zuria:** zuria, hutsa, gertaera hutsak, zenbakiak, informazioa.
- **Txapel gorria:** zirrarak, sentimenduak, bihozkadak, intuizioak.
- **Txapel beltza:** deabruaren abokatua, iritzi emate ezkorra, zerk zergatik egingo duen porrot argudiatzea.
- **Txapel horia:** eguzkiaren argia, distira, baikortasuna, eraikitzailea, aukerak.
- **Txapel berdea:** emankortasuna, sormena, landarea hazitik ateratzea, mugimendua, zirikatzea.

- **Txapel urdina:** neurria eta kontrola, orkestra zuzendaria, gogoetaz gogo egitea.

Zenbat eta lagun gehiagok ikasi hizkera hau, orduan eta emankorrago gertatuko da edozein erakundetan. Egia esan, oraino ez dugu izan eskura gogoeta kontrolatzeko hizkera sistema errazik. Txapelarenak halako hizkera erraza ematen du. Agian, ez dugu halako sistema baten premiarik sumatzen. Hala balitz ere, kontuan izan halako sistema batek ez lizukeela kalte egingo, eta bai, ordea, zeure adimena emankortuko.

Lasterketa egiteko berezko dohaina duenak bere buruari diziplina ezarririk emaitza bikainak lortuko ditu; hobeak, seguru asko, halako dohaina ez duenak baino.

Egokia iruditzen zait txapel bakoitza laburbiltzea. Laburpen hauek liburuan zehar erabilitako berak dira.

- **Gogoetarako txapel zuria**

Irudika ezazu konputagailu bat, eskatzen zaizkion datu eta informazioak besterik ematen ez dituen. Neutral eta objektiboa da. Ez du ezer interpretatzen, ez du iritzirik ematen. Gogoeta-egileak konputagailuak bezala jokatu behar luke txapel zuria erabiltzen duenean.

Informazioa eskatzen duenak galderak zehaztu eta ongi kokatu behar ditu, eta horrela informazio berria jasoko du edo informazio hutsuneak estaliko ditu.

Bi informazio mota bereizi dezakegu. Lehenengo mailan baieztatuta eta egiaztatutako gertaerak ditugu. Lehen mailako gertaerak esango diegu. Bigarrenean, ordea, ustez egiazko baina oraindik zeharo egiaztatu ez diren gertaerak daude. Bigarren mailako gertaerak.

Sinesgarritasun neurri guztiak ez dira berdinak. Mutur batean “beti egia” dioena dugu, eta beste muturrean, “sekulan ez egia” dioena. Bi muturren artean badira kategoria erabilgarriak, hala nola, “oro har”, “batzuetan”, eta “tarteka”. Honelako informazioa emateko ere erabil daiteke txapel zuria, baina ezinbestean adierazi behar da zein gertagarritasun maila ematen diogun esandakoari.

Txapel zuriaz egiten den gogoeta bide eta norabide jakin bat da. Gogoeta-egilea, informazioa ematean, saiatzen da neutralago eta objektiboago izaten. Agian, zuri eskatuko dizute txapel zuria janzteko edo, agian, zeuk eskatuko diozu besteren bati jartzeko. Aukeran dago janztea ala eranztea.

Zuriak (kolorerik ezak) neutraltasuna adierazten du.

- **Gogoetarako txapel gorria**

Gogoeta-egileak, txapel gorria erabiltzean, honako hau esan dezake: “kontu hori dela-eta, horrela... sentitzen naiz”.

Txapel gorriak azpimarratzen du zirrarek eta sentimenduek zein garrantzia duten gogoetan.

Txapel gorriak ikusgai uzten ditu sentimenduak, eta horrela mapan txerta daitezke. Era berean, nabarmen uzten ditu zein balore hartuko diren gero kontuan, mapa egin ostean ibilbide zehatza hautatu behar dugunean.

Txapel honek bide egokia ematen dio gogoeta-egileari zirraren eremura sartzeko eta handik ateratzeko. Amarru honengatik ez balitz, korapilatsuagoa izango litzateke sartu-atera hori.

Gogoeta-egileak besteen sentimenduez jabetzeko aukera dauka solaskideei txapel gorria erabiltzeko eskatzen dienean.

Gogoeta-egile batek, txapel gorria erabiltzen ari denean, ez lituzke *sekulan ere* sentimenduak zuritu behar edota logikan oinarritu behar.

Bi sentimendu mota sartzen dira txapel gorriaren eremuan. Lehenengo multzokoak dira zirrara arruntak. Haietako batzuk “gogorak” dira, hala nola, beldurra eta haserrea. Beste batzuk “meheak”, susmoa bezalaxe. Bien artean aldaera ugari aurkitzen dugu. Bigarren multzoan, sentsazio lanbrotsuak jarriko genituzke, hala nola, bihozkadak, intuizioak, sentsazioak, lehentasunak, estetika sentimenduak eta, oro har, begi bistan hautematen ez diren barne mugimendu guztiak. Baldin eta iritzi bat ematerakoan honelako sentsazio lanbrotsuetan oinarritzen ari bagara, egokiago izango litzateke txapel gorriaren bidez adieraztea.

- **Gogoetarako txapel beltza**

Iritzi ezkorrek ematea da txapel beltzaren gogoeta mota. Txapel beltzaz dabilen gogoeta-egileak honakoa jartzen du agerian: gaizki eta oker dagoena edota desegokia dena. Txapel beltza darabilen gogoeta-egileak nabarmentzen du ezen badagoela ezer gure esperientziarekin eta ezagutzarekin bat ez datorrena. Azalduko du zergatik egingo duen huts zerbaitek. Arriskuak bistaratuko ditu. Diseinu baten akatsak erakutsiko ditu.

Txapel beltzaren gogoeta mota ez da argudiatzea eta ez genuke sekulan halakotzat hartu behar. Aitzitik, ahalegin objektiboa da mapa egiterakoan alderdi ezkorrek ere kontuan hartzeko.

Txapel beltzaren gogoetak akatsak erakutsi ditzake, adibidez gogoeta bera egitean egiten ditugunak.

Txapel beltzaren gogoetak epaiketa egin diezaioke ideia bati, eta saiatuko da hura alderatzen kontu horri buruz dakigunarekin.

Txapel beltzaren gogoetak ideia baten geroa ere irudika dezake, ondorioztatzeko porrot egin dezakeela edo okerbidea har dezakeela.

Txapel beltzaren gogoetak badu galdera ezkorrek egiteko baimena.

Ez genuke txapel beltzaren gogoeta erabili behar sentimendu edo nahi ezkorrak estaltzeko, txapel gorria horretarako dago-eta.

Iritzi baikorrak ematea txapel horiaren egitekoa da. Ideia berriak agertzen diren aldiro, txapel beltza aurretik txapel horia erabili behar da, beti.

- **Gogoetarako txapel horia**

Txapel horiaren gogoeta baikor eta eraikitzailea da. Horiak hau adierazten du: eguzkiaren distira eta baikortasuna.

Txapel horiaren gogoeta iritzi baikorrak emateaz arduratzen da, txapel beltzak iritzi ezkorrez egiten duen bezalaxe.

Zabala da txapel horiak hartzen duen eremua. Mutur batean, logikara eta jarduera praktikoetara eraman dezake baikortasuna. Beste muturrean, amets, itxaropen eta ikuskarietara ere eraman dezake.

Balio eta etekinaren bila saiatzen da txapel horiaren gogoeta. Gero, logikan oinarritutako arrazoiak bilatuko ditu haiek funtsatzeko. Ongi funtsatutako baikortasuna da txapel horiaren ahalegina. Hala ere, ez da horretara mugatzen, aurrerago doa.

Txapel horiaren gogoeta eraikitzailea eta ekoizlea da. Berari esker plazaratzen dira proposamen eta iradokizunak. Eraginkortasunaz arduratzen da. Asmoak gauza daitezen eragiten du, hain zuzen ere.

Espekulatibo eta aukera bilatzaile ere izan daiteke txapel horiaren gogoeta. Halaber, amets eta ikuskariak onartzen ditu.

Txapel horiaren gogoeta ez da arduratzen ideia batek sortutako poztasun biziak (txapel gorria), ez eta, zuzenean, ideia berrien sortzeaz ere (txapel berdea)

- **Gogoetarako txapel berdea**

Txapel berdea gogoeta sortzailerako gordetzen dugu. Berori jantzen duen lagunak gogoeta sortzailearen hizkera erabiliko du. Haren kideek argi jakin behar dute gogoeta honen adierazpenak emaitza sortzaileak direla eta halakotzat hartu behar dituztela. Hoberenean, biek, bai gogoeta-egileak bai entzuleak, behar lukete txapel berdea jantzia eraman.

Berdea kolore bat da, emankortasuna, hazkundera eta hazien balioa adierazten duena.

Hautabideak bilatzea da, besteak beste, txapel berdearen eginkizunik garrantzitsuenetarikoa. Behar da ezagunaz haratago joan, bai eta begi bistakoaz eta askiasten gaituenaz haratago ere.

Txapel berdea erabiltzean sormenerako geldiunea hartzen du gogoeta-egileak. Balizko hautabide edo bestelako ideiak antzemateko hartzen du tarte. Ez du inolako motibaziorik behar eten hori egiteko.

Iritzia ematearen hizkera baztertu, eta mugimenduaren hizkera hartzen du txapel berdearen gogoetak. Gogoeta-egilea zinez saiatzen da ideia batetik bestera mugitzen, gogoeta aurrera eramaten.

Zirikatzeko edo akuilatzea da, dudarik gabe, txapel berdearen oso ezaugarri garrantzitsua. ZIRI hitzaren bidez adierazten dugu. Gogoeta ohiko ildoetatik aterarazteko erabiltzen ditugu zirikadak. Zirikatze bide eta teknika ugari badira. Zoriz aukeratutako hitza da horietako bat. Alboko gogoeta izenez ere ezagutzen dugu gogoeta mota hau, ohiko bideen ordezkariak hartzen baititugu. Kontzeptu eta hautemate berriak sortzeko erabiltzen dugu.

- **Gogoetarako txapel urdina**

Kontrolerako txapela dugu hau. Txapel urdina jantzirik duen gogoeta-egileak gogoeta bera antolatzen du. Gogoeta egiten du erabakitze bide zein gogoeta mota erabili behar duen gaia arakatzeko. Horixe da txapel urdinaren zeregina.

Txapel urdina jantzia duen gogoeta-egilea orkestra zuzendaria dirudi. Berak eskatzen du edo proposatzen zein txapel erabili. Txapel urdinaren gogoetak arretagunea finkatzen du. Arazoak zehazten ditu eta galderak prestatzen. Gogoetaren egitekoak markatzen ditu.

Txapel urdinaren gogoeta honako hauetaz arduratzen da: muina laburtzeaz, ikuspegi osoari heltzeaz eta ondorioez. Hau tarteka gerta daiteke, hots, gogoeta-lanean ari den bitartean, baina baita bukaeran ere.

Txapel urdinaren gogoetak gogoeta bera ikuskatzen du. Era berean, joko-arauak betetzea begiratzen du. Txapel urdinaren gogoetak eztabaida eteten du, eta aldi berean, mapa egile erako gogoetari (era kartografikoari) heltzen dio. Txapel urdinaren gogoetak diziplina erabiltzen du eta indartzen.

Txapel bat edo beste erabiltzeko eskatzen dugunean erabiltzen ari gara txapel urdinaren gogoeta. Baina, lalaber, egin genezake alde aurretik zehaztu saioan zehar zein hurrenkeran erabiliko ditugun gogoeta mota ezberdinak. Hurrenkera horri jarraitu behar zaio, dantzaria koreografiari lotzen zaion bezala.

Batzuetan, kideren bati ematen zaio txapel urdinaren gogoeta burutzeko zeregina. Hala eta guztiz ere, kide guztiek har dezakete hori bere gain une batean edo bestean, adibidez batek prozesuari buruzko iradokizun edo iruzkinak egin nahi dituzenean.